

OINARRIAK

1. Edonork parte hartu dezake bakarka zein taldeka.
2. Gaia, **GAU BELTZA** izango da.
3. Ez da onartuko eduki sexista edo arrazista duen komikirik edo dena delako arloan intolerantziatzko jokabiderik eragin dezakeenik.
4. Lanak euskara hutsean aurkeztu behar dira, eta erabilitako euskararen bizitasuna kontuan hartuko da.
5. Ez da komiki muturik onartuko.
6. Lehiaketan jatorrizko lana aurkeztu behar da, autorea(e)k bera(ie)k sortutakoa, ordenagailu bidez sortu edo tratatua izanda ere; eta argitaratu gabeak izan beharko dute.
7. Lanak A-4 formatu bertikalean aurkeztu behar dira, eta plantilla bidezko ordenagailu programak edo inteligentzia artifizialak ezingo dira erabili.
8. Lanak orrialde bat, bi, hiru edo gehienez lau izan ditzake.
9. Istorio bakarra zein bat baino gehiago aurkezteko aukera dago.
10. Irudi digitalizatuak gutxienez 300 ppp-ko kalitatean inprimatuko dira.
11. Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 20a izango da.
12. **NOLA AURKEZTU:** aurkeztutako komikiak izenburua izan behar du. Komikiarekin batera, aparteko orri batean, ORDENAGAILUZ idatzita, datu hauek aurkeztu beharko dira: izen-abizenak, telefono zenbakia, jaiotze urtea, helbidea, posta elektronikoa eta komikiaren izena.


ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



BABESLEAK



LANAK NON ETA NOIZ

Lanak Galtzaundiren egoitzan aurkeztuko dira edo postaz helbide honetara bidaliko dira:



Galtzaundi Tolosaldeko
Euskaltzaleen Elkarte
"Galtzakomik komiki lehiaketa"
Plaza Berria 1
20.400 Tolosa (Gipuzkoa)

Aurkezteko azken eguna 2026ko azaroaren 20a izango da. Correosen egun horretan aurkeztutako gutunak ere onartuko dira.

Komiki lehiaketan jasotako lanekin erakusketa antolatuko da, abenduaren 11tik urtarrilaren 5era, Ibarako Kultur Etxean. Erakusketa amaitu ondoren, 30 eguneko epean, sarituak izan ez diren lanak jasotzeko aukera egongo da. Epea bukatu eta gero, eskatuak izan ez diren lan guztiak Galtzaundiren artxiboan gordeko dira.

EPAIMAHAIA

Maite Caballero, Yurre Ugarte eta Joseba Larratxe (Josevisky) adituek osatuko dute epaimahaia. Ondoko irizpideak hartuko dituzte kontuan: istorioaren zuzentasuna eta ulermena, marrazkiaren bizitasuna eta originaltasuna, idazmena, eta marrazketarako erabili den materiala eta teknika.

Komikien kalitatearen arabera, epaimahaiak sariak moldatu edo eman gabe utzi ditzake. Azken erabakia epaimahaiarena izango da, eta aldaezina izango da. Egile bakoitzak sari bakarra eskuratu dezake.

SARI BANAKETA

2026ko abenduaren 11an, 19:00etan, Ibarako Kultur Etxean egingo da. Saria eskuratzen dutenek nahitaez sari banaketa ekitaldira etorri beharko dute, pisuzko arrazoiren bat ez bada tartean.

SARIAK

9 urtera arte (2017an jaiotakoak barne)

- 1. saria:** Opari txeketa + komiki bilduma.
 - 2. saria:** Marrazketarako materiala + komiki bilduma.
- Aipamena:** Komiki bilduma.
- Ibarako komikirik onena:** Ibarako merkatarien opari txeketa + komiki bilduma.
- *Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez.

10-12 urte artean (2016an eta 2014an jaiotakoak barne)

- 1. saria:** Opari txeketa + komiki bilduma.
 - 2. saria:** Marrazketarako materiala + komiki bilduma.
- Aipamena:** Komiki bilduma.
- Ibarako komikirik onena:** Ibarako merkatarien opari txeketa + komiki bilduma.
- *Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez.

13-16 urte artean (2013an eta 2010ean jaiotakoak barne)

- 1. saria:** 200€ + komiki bilduma.
 - 2. saria:** 100€ + komiki bilduma.
- Aipamena:** Komiki bilduma.
- Ibarako komikirik onena:** Ibarako merkatarien opari txeketa + komiki bilduma.
- *Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez.

17 urtetik gora (2009an jaiotakoak barne)

- 1. saria:** 700€ + Karlatz garagardotegian bi lagunentzako afaria.
- 2. saria:** 300€ + Eguzki Lore tabernan bi lagunentzako afaria.



Denonartean saria

Zure komikia argitaratua ikusteko aukera!

Epaimahaiak sarituko dituen lan guztien artean, *Denonartean* argitaletxeak bat aukeratuko du eta argitaratu egingo da.

Mahala sariak

Parte hartzaileen artean sariak zozkatuko dira

Mahala baserriko produktuez osatutako bi sorta zozkatuko dira sarituak izan ez diren parte hartzaileen artean. Zozketa abenduaren 9an egingo da, eta sare sozialen bidez zabalduko da.

OHARRA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzen direla esan nahi du.

Galtzaundik egin ditzakeen argitalpenetarako lanak argitaratzeko baimena ematen da.

Lehiaketa honi buruzko informazio gehiago Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearekin harremanetan jarri eskuratu daiteke (943 655 004, galtzaundi@galtzaundi.eus, galtzaundi.eus).

Datu Pertsonalak Babesteko arautegia betez, jakinarazi nahi dizugu zure datu pertsonalak Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearen fitxategietan jasoko direla lehiaketa hau kudeatzeko, elkartearen legezko betebeharrak burutzeko eta zure interesekoa izan daitekeen informazioa bidaltzeko. Datuak epe zehatzik gabe kontserbatu daitezke. Lehiaketa honetan parte hartuz gero, baimen zehatza ematen diozu elkarteari zure datu pertsonalak tratatzeko. Hamalau urte ez badituzu zure gurasoen baimena behar duzu zure datu pertsonalak emateko (lehiaketan parte hartzeak hauen baimena duzula esan nahi du). Sariduna gertatzen bazara baimen zehatza ematen diozu elkarteari zure datuak lehiaketaren web gunean eta Galtzaundik erabiltzen dituen komunikabide edo/eta euskarri desberdinetan argitaratzeko eta zabaltzeko (bai paperez bai baliabide elektronikoak erabilita). Zure datuak ikusteko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, baita tratamenduari aurka egiteko ere. Era berean, emandako baimena edonoz ezeztatu dezakezu, baita gai honi buruzko beste eskariren bat egin ere. Horretarako elkartera jo beharko duzu, helbide honetan: Plaza Berria 1, 20.400 Tolosa (Gipuzkoa) edo posta elektroniko honen bitartez: galtzaundi@galtzaundi.eus. Zure eskariari emandako erabakiarekin ados ez bazaude edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, kontrol aginte eskudunera jo dezakezu, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa (www.agpd.es).